

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
11/2010	R15/2011	2011/05/26	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Arabako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Zerga egoitza aldatzea. Administrazio batek eskumena onartzea. BEZ</i>

R15/2011 ebazpena

11/2010 espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2011ko maiatzaren 26an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Hitzarmenaren Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada mahaiburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese mahaikideek osatzen dutenak, ondoko hau hartu du:

ERABAKIA

ENTIDAD 1 ABEE erakundeak (IFZ: U-xxx) Arabako Foru Aldundiaren eta Estatuko Administrazioaren kontra planteatutako gatazkari buruz, eta bi administrazioetarik 2007ko ekitaldiari dagokion BEZa konpentsatzeko eta itzultzeko eskumena duen administrazioari buruz, Arbitraje Batzorde honetan 11/2010 espediente zenbakiarekin izapidetzen dena.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau ENTIDAD 1 ABEEK (IFZ: U-xxx) –hemendik aurrera, “erakundea”– 2010eko martxoaren 31ko data duen eta Arbitraje Batzorde honetan 2010eko apirilaren 10ean sartu zen idazkiaren bidez planteatu zuen. Idazki horretan, ondoren laburbiltzen diren aurrekariak azaltzen dira:

1. ENTIDAD 1 ABEEK 2008ko abuztuaren 29an bere sozietate eta zerga egoitza Madriletik Arabara aldatu zuen eta 2007ko ekitaldiari dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zergako aitorpena Arabako Foru Aldundian aurkeztu zuen,

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
11/2010	R15/2011	2011/05/26	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Arabako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Zerga egoitza aldatzea. Administrazio batek eskumena onartzea. BEZ</i>

konpentsatzeko 4.675,38 euroko emaitzarekin, baita ekitaldi horri buruzko urteko aitortpen laburpena ere (390 eredu).

2. Arabako Foru Aldundiak erakundeari behin-behineko likidazioa jakinarazi zion, itzultzeko 0 euroko emaitza zuena, AEATen kreditaturik eskatutako konpentsazioa Foru Aldundiari aurkeztutako aitortpenean onartu ezin daitekeelakoan oinarrituta.
3. 2010eko otsailaren 5eko idazki baten bidez, erakundeak AEATen aurrean eskatu zuen aipatutako saldo negatiboaren konpentsazioa, kontuan hartuta konpentsazio hori ezin daitekeela egin Arabako Foru Aldundian
4. Erakundearen eskaerari ezezkoa eman zitzaion AEATen 2010eko maiatzaren 18ko ebazpenaren bidez, haren egoitza Legutianora (Araba) aldatu duenez, itzulketa egoitza berriaz eskumena duen administrazioari, hau da, kasu honetan Arabako Foru Ogasunari dagokiola iritiz.
2. Erakundeak planteatutako gatazka 2011ko martxoaren 28an onartu zuen izapidetara Arbitraje Batzorde honek, eta eragindako bi administrazioei epea jarri zien kasu honen inguruko espedientea bidal zezaten.
3. AEATEk 2011ko maiatzaren 3ko idazkiaren bitartez bidali zuen espedientea. Arbitraje Batzorde honetako erregistroan hilaren 4an izan zuen sarrera.

II. ZUZENBIDE OINARRIAK

1. AEATEk ongi adierazten duen bezala, gatazka honen mamia ondoko hau erabakitzean datza: ea zein administrazioek duen eskumena erakundearen 2007ko ekitaldiko BEZaren aitortpen-likidazioaren saldoa itzultzeko, zeinak 4.675,38 euro jotzen duen.
2. AEATEk, bere alegazio idazkian, Auzitegi Gorenaren 2010eko ekainaren 9ko (*sic*, egiaz 10eko) eta 2010eko ekainaren 17ko epaiak aipatu ditu, Arbitraje Batzorde honek funtsean oraingoaren berdinak diren gatazkei buruz hartutako erabakien

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
11/2010	R15/2011	2011/05/26	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Arabako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Zerga egoitza aldatzea. Administrazio batek eskumena onartzea. BEZ</i>

kontrako errekurtsoetan emanak, Auzitegi Gorenak haren jarrera berretsi duelarik. AEATEk, bere idazkian, aipaturiko epaietako lehenengoaren paragrafo hauek eman ditu, zeinetan laburbiltzen baita Auzitegi Gorenaren doktrina gai honetaz:

Subjektu pasibo batek bere zerga egoitza lurralde jakin batean zuenean jasandako BEZaren kuotak haren zerga egoitza berriari dagokion zerga administrazioaren aurrean aurkeztutako aitorten-likidazioetara aldatzeak berekin ekarriko luke Ekonomia Hitzarmenean aurreikusitako ordainarazteko eskumena bestelakotzea, zeren eta “ordainarazpen” hori murriztuta gertatuko bailitzateke lehenagoko une batean jasandako kuoten konpentsazioagatik (...)

Balio Erantsiaren gaineko Zerga berehalako sortzapeneko zerga denez gero, horrek berekin dakar subjektu pasiboak administrazio eskudun bakoitzean aurkezten dituen aldizkako aitorten-likidazioen barruan sartu behar dituela egoitza aldatu duen momentura arte sortzape a izan duten BEZak, orobat une horretara arte jasandako BEZak (itzulketarako eskubidea ematen dutenak) kenduz, eta hortik ateratzen den diferentzia “garbiak” zehaztuko du administrazio bakoitzak eskumena izango lukeen ordainarazpenaren zenbatekoa.(...)”.

3. AEATEk dio erakundeak 2007ko ekitaldian bere zerga egoitza lege arrunteko lurraldean izan zuela, eta aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 7.000.000 euro baino gutxiago; horren ondorioz, adierazitako epealdian BEZa ordainarazteko eskumena bakar-bakarrik AEATERi zegokin. Beraz, aipaturiko doktrina jurisprudenziala ikusirik, BEZaren saldo kopentsatugabearen itzulketa administrazio horri dagokiolako ondoriora heldu da.

4. Ondorio gisa, AETek adierazten du, Auzitegi Gorenak finkatutako doktrina orain dagokigun kasuari ere aplikagarria zaiola bistakoa denez, AEATEk onartzen duela erakundeak 2007ko ekitaldiari buruz aitortutako BEZ konpentsatugabea itzultzeko eskumena.

5. AEATEk eskatzen dio Arbitraje Batzordeari “erabaki dezala bi administrazioen arteko gatazka ez izapidetzea, AEATEk onartzen duelako 2007ko ekitaldiari

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
11/2010	R15/2011	2011/05/26	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Arabako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Zerga egoitza aldaketa. Administrazio batek eskumena onartzea. BEZ</i>

dagokion BEZaren itzulketarako eskumena". Onarpen hori ikusirik, bidezkoa da, Arbitraje Batzordearen Arautegiaren 13.3. artikuluko hirugarren paragrafoan xedatutakoa kontuan edukiz, AEATEk eskatutakoa onartzea eta oraingo gatazka ez izapidetzea.

Horren ondorioz, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

ENTIDAD 1 ABEE erakundeak (IFZ: U-xxx) planteatutako gatazka automatikoa ez izapidetzea, AEATEk onartu duelako 2007ko ekitaldiari dagokion BEZaren saldoa, 4.675,38 euro jotzen duena, itzultzeko eskumena.